



2019/09/26KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2019/09/26
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:25

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Santiago Balantzategi Ugarte

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

Maria Cristina Etxenautia Irure

Oihana Ameskoa Perez

Iban Herrarte Arana

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

- - -

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. 2018KO KONTU OROKORRA ONARTZEA.	3
4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, ARAMAIOKO LANDA BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAREN HIRUGARREN FASEARI.	3
5. GALDERAK ETA ESKAERAK.	4



1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Alkate-Lehendakariak 2019ko ekainaren 15ean eta 2019ko ekainaren 20an bilkuretako akten gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (123/19tik 282/19ra).

Bakarra.- Hasiera ematea, UDAL KULTUR ETXEA KUDEATZEKO zerbitzu kontratua esleitzeko espedienteari eta, hartara, hasiera ematea kontratua esleitzeko prozedurari.

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

3. 2018KO KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Alkateak aurkezten du 2018ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra. Kontu Orokorra osatzen dute, batez ere, udalaren 2018ko ekitaldiko eragiketen likidazioak eta udal enpresa publikoaren kontu eta auditoria txostenak. Aurretik, dokumentu bakoitzak bere onarpena izana du dagokion foroan. Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak oniritzia eman ondoren, dagokion iragarkia argitaratu zen ALHAOn eta dokumentu osoa jendaurrean izan zen erakusgai 15 eguneko epean eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako diktamena:

“**Lehena.-** Onestea 2018ko Kontu Orokorra.

Bigarrena.- Dagokion erakundeei egoki den dokumentazioa bidaltzea jardunbideari jarraipena emateko.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. HASIERAKO ONARPEN EMATEA, ARAMAIOKO LANDA BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAREN HIRUGARREN FASEARI.

Alkateak adierazten du, 2017ko azaroaren 30eko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zitzaiola landa bide publikoen inbentarioaren lehenengo faseari. Orduetik hona, berriz, hainbat bideren inguruko azterlanarekin jarraitu duela Sendo enpresak, batetik, aurreko bideen inguruko azterketa sakontzen eta, bestetik, bide berriei buruzko txostena prestatu eta oinarriak ikertzen.

Oraingoan, berriz, Udalbatzan aurkezten da aurretik egindako lanaren jarraipena, udal ondarean sakondu eta duen izaeraren balioa azalarazteko.

Udalbatzari aurkezten zaion materiala eta, ondoren, jendaurrean izango dena, honako hau da:

- bideen zerrenda
- bide bakoitzaren fitxa
- Aramaioko mapa, 1:10.000 eskalan. Zatitan banatuta agertzen da, non bide bakoitza bere kodigoaz agertzen den.

Ondoren, alkateak aurkezten du Mendi eta Ingurumen Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea, Aramaioko landa bide publikoen inbentarioaren hirugarren faseari.



Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta bi hilabeteko epea irekitzea, publikatu eta biharamunetik kontatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten alegazio eta iradokizunak egin ditzaten.

Hirugarrena.- Honakoaren berri interesdun orori helarazteko asmoz, dagokion iragarkiak argitaratzea, ediktu tabloian, udalaren webgunean eta bando bidez .”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Mendi eta Ingurumen Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta eskaera bat adierazten dio Udalbatzari: aurretik UEMAko teknikariarekin izandako bileraren ondoren, aproposa iruditzen zaio datorren urteko udal aurrekontuan zinegotzieren euskara mailan sakontzeko asmoz, ikastaroak egiteko diru kopurua bat jasotzea.

Gainerako zinegotzietan adostasuna erakusten dute egindako proposamenaren aurrean.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.